



Arartekoaren 2017R-1647-16 Ebazpena, 2017ko apirilaren 10ekoa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari diru-sarrerak bermatzeko errenta baten etetea berrikus dezala gomendatzen zaio, bai eta bidegabe jasotako prestazioagatiko zor baten sorrera ere.

Aurrekariak

Abuztuaren 10ean diru-sarrerak bermatzeko errenta etetearen ondoriozko kexa bat izapidetzeko onartu zen. Horretarako arrazoia, Lanbidek xede horrekin uztailaren 19an emandako eteteko ebazpenean jasotzen denez, honako hau zen: Euskaditik kanpo egindako irteera batetik Lanbideri esandako data baino bost egun geroago itzuli zela.

Horri erantsitako ondorio modura, uztailaren 19an bertan Lanbidek 689,06 euroren itzulketara eskatzeko prozedura hasi zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa bidegabe jasotako zenbatekoengatik.

Arartekoak uste duenez diru-sarrerak bermatzeko errentaren esparruan Euskaditik kanpo egindako irteerak Lanbideri jakinarazteko beharrik ez dagoela, irailaren 1ean erakunde autonomoari idatzi bat bidali helarazi zitzaion aldeztatik iritzi honen berri emateko.

Urriaren 17an, Arartekoaren erregistroan Lanbideren idazki bat sartu zen; horren bidez, erakunde honek aurretik helarazitako gogoetei erantzuten zaie. Halaber, idazki hori gomendio honen oinarria da.

Lanbidek, emandako erantzunaren bidez, adierazi du Euskaditik kanpoko irteerak jakinaraztea diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen betebeharrak bat dela; izan ere, betebeharrak hori ez betetzeak eragin zuen prestazioaren bigarren etenaldia. Ez errepikatzearen, Lanbideren erantzunaren edukiari buruz egindako aipamenak gogoeten hurrengo atalean jasotzen dira.

Gogoetak

Adierazi beharra dago, Arartekoak dagoeneko hainbat aldiz egin izan duen bezala, 18/2008 Legearen 19. artikulua eta 147/2010 Dekretuko 12. artikulua arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonak ez dutela EAetik kanpora egindako irteerak jakinarazteko betebeharra.

1. Jakina denez, Arartekoak uste du lekualdatze batek ekar dezakeela, bere ezaugarrien arabera, DSBE bati eragiten dion ebazpena.





Hala, irteera horrek gastu handia ekartzen badu, egoera ekonomikoa ez larriagotzeko edo diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortu zen xedeetara bideratzeko betebeharra ez betetzea ekar lezake (18/2008 Legearen 19.1. artikulua), edo, are, egoera luzatuz gero, bizileku eraginkorra EAEn edukitzeko betekizuna galtzea ekar lezake (18/2008 Legearen 16.b) artikulua). Baina irteera batek, berez, ez luke eraginik izan beharko prestazioan.

Organismo autonomoari beste gomendio batzuen harira esan izan zaionez, arrazoi berbera aintzat hartzen duen jurisprudentzia dago (1330/2015/QC, 686/2015/QC, 1312/2016/QC edo 2024/2016/QC espedienteak adibidez) eta horren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duen araubidearen arabera ez dago Euskaditik kanpo egindako irteerak jakinarazteko betebeharririk, estatutik kanporako irteerak izanik ere.

Irteera horiek jakinarazteko betebeharririk ez egotearen inguruan Arartekoak duen ikuspegia bat dator Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. zenbakiko Epaitegiaren 44/2015 Epaiaaren bigarren oinarri juridikoarekin. Horren bidez, EAetik kanpora egindako irteerak ez jakinarazteagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta eteten duen ebazpen baten aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa balioetsi da, irteera horiek Lanbideren aurrean jakinarazi ez izanari dagokionez honako hau aipatuz amaitzen dena: *"...no estamos ante incumplimiento de obligación alguna conforme al artículo 12, citado por la administración en la actuación impugnada, sin concretar la específica obligación incumplida y sin que el hecho referido pueda subsumirse dentro de la obligación contemplada en el citado precepto de comunicar cualquier cambio relativo al domicilio de residencia habitual de la persona titular, que es claro que no se ha modificado en el caso que nos ocupa"*..

2. Arartekoaren gogoetei erantzunez, informazioa eskatzeko idazkiaren bidez igorritakoak, Lanbidek hauxe adierazi zuen: *"Egokia da adieraztea hartzaileek aitortza-aldian bete behar dituzten betebeharrei eta betekizunei buruzko informazio xehea eransten duela Lanbidek prestazioak aitortzeko ebazpenekin batera, eta horien artean dagoela enplegurako une oro eskuragarri egotekoa (bai prestazioen titularra, bai bizikidetzaren unitateko kideak, lan egiteko adina badute eta horretarako salbuetsita ez badaude)."*

Alde horretatik, adierazi behar dugu enplegurako eskuragarri egotea 147/2010 Dekretuaren 12.2b) artikulua zehazten duela, honako baldintza hauetan: *"Prestasun horrekin batera konpromisoa hartu beharko dute enplegu-eskatzaile gisa iraunkorki inskribatuta egoteko, hala dagokionean lan-bitartekaritza ekar dezakeen diagnostiko soziolaboralera egokitutako laguntza-prozesu baten esparruan, enplegu egoki bati uko ez egiteko, enplegua ez behin betiko ezta aldi baterako ere ez uzteko, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin koordinatuta*





onartutako muturreko kasu justifikaturik gabe lanaldi-murrizketa edo lan-eszedentzia ez hartzeko. Enplegu-eskatzaille gisa etengabe izena emanda egoteko konpromisoa ez zaie aplikatuko egoitza-baimenik ez duten atzerritarrei”.

Beraz, Arartekoaren ustez Lanbidek ezin du lotu EAetik kanpora egindako irteera bat ez jakinaraztea eta enplegurako eskuragarri egoteko beharra, transkribatutako aginduak argi zehazten baitu eskuragarritasun horren edukia, eta ez baitu irteerak jakinarazteko betebeharra barne hartzen.

Ikuspuntu horrekin bat egin du orain gutxi emandako jurisprudentziak ere.

Hala, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiaren 2016ko uztailaren 11ko 156/2016 Epaiak ondorengo adierazi zuen Laugarren Oinarri Juridikoan:

“Tal y como se desprende del expediente administrativo, con fecha 22/09/2015, XXX formula solicitud de renovación de RGI, aduciendo la administración demandada que no comunicó la salida efectuada entre 01/06/2015 y 02/07/2015 fuera de la CAPV. La parte recurrente no contraviene el expresado fundamento fáctico, y así se corrobora en el folio 8 del e.a. del examen de su pasaporte.

Siendo éste el motivo sobre el que la administración demandada sustenta su resolución de no renovación hemos de concluir que no se comparte el juicio alcanzado por la misma, no sin antes expresar la insuficiente motivación de la resolución impugnada, en la que no se conecta normativamente el incumplimiento al parecer detectado con la concreta prescripción que habría sido inobservada por la actora, siendo el acto del juicio, el primer momento en el que la asistencia letrada de la administración demandada permite una concreta identificación de la normativa que a juicio de Lanbide ha sido vulnerada. Resultando incontrovertido que la parte actora ha efectuado la salida fuera de la CAPV a la que se hace referencia, hemos de concluir que nada más que una salida puntual constituye el hecho acreditado, sin que del mismo quepa inferir una modificación sobrevenida de las circunstancias sobre las que se sustenta la concesión de la prestación, ni en modo alguno, que la actora haya cambiado su lugar de residencia efectiva, ni que ésta no se hubiera encontrado disponible para el empleo . Del examen de las cuentas presentadas no se deduce con la exigible claridad a efectos de sustentar la decisión hoy combatida que la actora hubiera destinado el importe de la RGI a finalidad distinta que la de satisfacer sus necesidades básicas. No habiendo sido por tanto acreditado el incumplimiento de las obligaciones sobre la que se residencia la decisión administrativa, procede la íntegra estimación del recurso contencioso administrativo”.





Epai horrek beste epai bat aipatu du, epaitegi berberak emandakoa, argudiatze juridikoaren oinarri gisa 201/2015 duena, 2015eko irailaren 30ekoa:

"No encontramos en la legislación autonómica citada motivos o justificación para la retirada de la prestación subvencional por la ausencia de la CAPV de cinco días, pues no contempla la legislación estatal ni autonómica que ante tal ausencia se le deba retirar la prestación.

Por lo que respecta a la concreta obligación del perceptor de comunicar los cambios sobrevenidos y de residencia (artículo 19, letras f) y g) de la ley 18/2008, de 23 de diciembre), se trata de cambios que se refieran a las condiciones para ser perceptor de las ayudas del art. 16 referidos a estar empadronado, tener residencia efectiva, tener necesidades sociales o ingresos, todas las cuales se cumplen y se siguen cumpliendo con independencia de la ausencia de cinco días. En este sentido la administración está vinculada por el principio de legalidad, de tal manera que si una norma le habilita y le faculta para retirar la ayuda esta podrá y deberá hacerse efectiva, pero, si por el contrario no existe una norma que directa y claramente determine el cese de la asistencia, esta no podrá realizarse.

Es la concreta regulación de las ayudas la que nos impide negar o retirar a quien se haya ausentado de la CAPV cinco días, por mucho que tenga que estar a disposición de Lanbide por posibles ofertas de empleo, manteniendo el empadronamiento y la residencia habitual, razón por la que, no podemos aceptar la retirada de la ayuda social, y debemos estimar el recurso".

3. Uztailaren 19ko ebazpenaren bidez, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eten zuen adierazitako data baino bost egun geroago itzultzeagatik eta ez, Arartekoari informazio eskaeraren erantzunean adierazi zaien moduan, enplegurako eskuragarri egoteko betebeharra ez betetzeagatik.

Hortaz, erakunde honek uste du, kausa hori ordenamendu juridikoan diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko arrazoi gisa aurreikusita dagoenez, eteteko ebazpenean beren-beregi azalduta egon beharko lukeela. Hala, Lanbidek ezin du Arartekoari emandako erantzunean hori aipatu eta irteerak jakinarazteko betebeharra bete ez dela esan, hori ez dagoelako araudian aurreikusita.

Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiaren 2016ko martxoaren 15eko 77/2016 epaiak gai hori honako termino hauetan aipatzen du:

"(...) la administración hace girar su argumentación alrededor de la necesaria disponibilidad para el empleo que ha de tener el perceptor, y sobre cómo dicha disponibilidad podría verse afectada por las salidas a territorio extranjero. Esta obligación se recoge en el mismo art. 12 pero en





su segundo punto. La cuestión es que no existe ninguna regulación específica respecto de los plazos que puede o no durar una salida, sin perjuicio de los criterios internos que maneje la administración para valorarlo.

El conflicto planteado para considerar conforme a derecho la resolución objeto de recurso en definitiva reside en que no cabe abrir una puerta en este procedimiento, para valorar si las concretas salidas del territorio de la CAPV por parte del recurrente, han supuesto una quiebra de su obligación de disponibilidad para el empleo, dado que esa no fue la razón por la que se denegó la renovación.

Como se ha dicho, la renovación se deniega por la falta de comunicación y autorización de dichas salidas del territorio de la CAPV. En este sentido, se ha de precisar que el art. 12 no contiene una previsión de comunicación de hechos sobrevenidos que se vincule a la obligación del punto segundo del mismo artículo, sino que el apartado 1, letra f) del precepto, desglosa cuales son las comunicaciones que en el plazo de quince días, ha de realizar el receptor de la renta”.

4. Azkenik, bidegabe jasotako zenbatekoengatik 689,06 euroko zorrari dagokionez, aipatu behar da Lanbidek uztailaren 19ko ebazpen gisa kalifikatzen duena ez dela hala, zenbateko hori itzultzeko prozedura hasteko jakinarazpena baita.

Horren ondorioz, Arartekoak ez daki zorra ondorengo ebazpen batek zehaztu duen ala ez.

Kexagileak irteeraren berri eman zuen, baina adierazitakoa baino bost egun geroago itzuli zen; egoera horrek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria etetea eragin du. Etetea erabaki zuen ebazpenean, honako hau jotzen da arrazoitzat: Euskaditik kanpo egindako irteerak jakinarazteko betebeharra ez duela bete, baina betebeharrak hori araudian ez da berriaz jasotzen. Ondoren, erakunde honi igorritako erantzunean azaltzen da, etete hori enplegurako eskuragarri egoteko betebeharra ez duelako betetzen gertatu dela -147/2010 Dekretuaren 19.2.b) artikulua-; agindu horrek ez du jasotzen, ordea, Euskaditik ezin denik irten denboraldi batez. Arartekoaren aburuz, Lanbidek espedientea berrikusi eta erabakiak bere jardunak zuzentzen dituen esparru juridikoari egokitu beharko litzeki.

Horregatik guztiatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendioa luzatzen zaio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari:





GOMENDIOA

Arartekoak kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko erabakia berrikus dadin gomendatzen du, eta baita bidegabe jasotako prestazioengatiko zorraren sorrera ere.

